



Esp.kodea: 2021KZUD0004

Gaia: ESKATZEA LAGUNTZA EKONOMIKOA  
Hasiera eguna: 2021/07/05

## JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

### “Onartutako dirulaguntza itzultzeko eskatzea Goienagusi elkarteari (2021KZUD0004)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Kultura eta Euskara Batzordeburuaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen 2021-9-30eko bileran Goienagusi elkarteari 800 euroko dirulaguntza ematea hamargarren urteurren ospakizuneko kultura emanaldia antolatzeko. Osasun egoera dela eta Goienagusik ez du burutu aurreikusitako kultura ekitaldia Amaia antzokian, eta horren ondorioz ez du aurkeztu onartutako dirulaguntzaren justifikaziorik.

Hori dela eta Goienagusi elkarteari eskatu behar zaio aurreratutako diru kopurua itzultzea.

Gauzak horrela, Kultura eta Euskara Batzordeburuak hau proposatu du:

Eskatzea Goienagusi elkarteari itzul dezala 2021ean aurreratutako dirulaguntzaren zenbatekoa, 480 euro.”

*Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.*

*Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.*

*Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurtsu aurkeztu dezakezu.*

Idazkaria

GOIENAGUSI ELKARTEA, Jose Maria Eraña. Altamirazpi 5, beh  
AP CORREOS 4  
20500 ARRASATE/MONDRAGON

<b>Kodea</b>	BB22/00350	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2022/mar./28	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAANM4P.6.8EsZ
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANM4P6.8EsZ">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANM4P6.8EsZ</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

